

M. Ugaldek pintura eta literaturaren artean hautatu zuen

Xabier G^a Arguello

Hemen, 1989-01-06: 15.

Martin Ugalde ez da oroitzen ahal txikitan bokazio edo grina bereziren bat zuentz: *"nik uste dute idaztea izan dela betidanik nire bokaziorik kuttunena"*.

Idaztearekin batera, dena den, gaztetatik ekin zion garai batez pintatzeari, Venezuelen bizi zelarik, baina *"bi bokazioak aldi berean behar bezala konpliztea ezinezkoa zela ikusirik –behinik behin nire kasuan–, bien artean aukeratu behar izan nuen eta literatura hautatu nuen"*.

Dena den, ez du uste bere kasua bakana denik. *"Idazten diharduen jende asko dago pinturan zale izan dena, eta baita bestera ere, pintore asko literaturan trebatu dena eta, normalean, bi bideetariko bat aukeratu beharrean aurkitu izan dira batzuk nahiz besteak"*.

"Nire ustez, ez da batere harrizkoa artearen bideetan barrena abiatzen den jendeak bi bide nagusi horiek aukeratzea", gaineratu du, *"biak bait dira errealitatea erretratatzeko bide egoki. Azken batean, funtzio berebera betetzen dute, hau da, autoreari, nolabait Jaungoikoarena eginez, oker dauden gauzak zuzentzeko aukera eskaintzea, errealitatearen islada den autorearen menpeko mundu horretan nolabaiteko moralitatea ezartzeko aukera ematea alegia"*.

Nolanahi ere den, segur da bere zereginari dagokionez, *"bokaziorik gabe ezin daitekeela idatzi, oso disziplina handia eskatzen duen lanbidea bait da"*.

Pintore bezala Venezuelen zegoelarik trebatu zen, *"eta oso gauza lagungarria zitzaidan eginbide batetik bestera ibiltzea, burua apur bat lasaitzeko"*, baina bokazio batek bestean lekua kentzen zionez, *"idazten ihardutea deliberatu nuen, pintura bazterrean utzirik"*.

Venezuelan bizi izan zen garai hartan ere, *"hamasei-hamazazpi urterekin"*, "Deportivo Vasco" zeritzon futbol taldean jolasten hasi zen, *"baina behin batean zoritxarreko kolpe bat hartu nuen belaunean eta futbolearen aritzeari utzi behar izan nion. Horixe izan liteke nire bokazio frustatu bakarra"*.